



VIII. AKTA

Gaia: Euskadiren Argentina eta Uruguaiako Ordezkaritzako idazkari-laguntzaile lanpostua betetzeko langileak hautatzeko prozesua. Azken erabakia.

Prozesua:

Euskadik Argentinan eta Uruguain duen Ordezkaritzako Idazkaritzako/Administrazio Laguntzaileko Langileen plazaren lan-kontratazioa egin nahi da.

Prozesuak fase hauek ditu:

1. Hautagai-zerrendak aztertzea: hautagai-zerrendak jasotzea eta egiaztatzea ea betetzen dituzten deialdian parte hartzeko nahitaezko baldintzak.
2. Oposizio-fasea: ezagutza-probak, proba psikoteknikoak eta elkarriketa pertsonala.
3. Merezimenduak baloratzeko fasea.

Hautaketa-prozesuaren 2. eta 3. faseak deialdiaren oinarrietan deskribatutako bi ebaluazio-faseei dagozkie (deialdiaren 6.2 atala): oposiziokoa, hiru ariketa dituen (ezagutza-proba, psikoteknikoa eta elkarriketa pertsonala) eta merezimenduen ebaluazioa.

Elkarriketak amaitu ondoren, eta meritua ebaluatuta, Epaimahaiak prozesuaren fase guztiak GAINDITU dituzten hautagaien behin-behineko lehentasun-ordena prestatu zuen.

Epaimahaiburuaren 2025eko irailaren 15eko Ebazpenaren ondoren, behin-behineko lehentasunarekin, 5 eguneko epea ireki zen elkarriketa-prozesuari buruzko erreklamazioak aurkezteko. 2025eko irailaren 20an amaitu zen erreklamazio-epea, eta erreklamaziorik aurkeztu ez zenez, jarraian argitaratzen da behin betiko hautatutako izangaiaren izena:

Aldana Yael Paola Ochoa

Eta ordezeko izangaiena:


Erregistro zenbakia
SECADM-094
SECADM-063
SECADM-067

Deialdiaren oinarrien arabera, hamabost (15) egun naturaleko epea ezartzen da behin betiko hautatutako izangaiak Ordezkaritzak eskatzen dizkion jatorrizko agiriak edo

fotokopia konpultsatuak aurkez ditzan, eskatutako eta alegatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Lan-kontratua sinatzeko berrogei (40) egun naturaleko gehieneko epea zehazten da.

Buenos Aires hirian, 2025eko irailaren 22an.



Sara Pagola Aizpiri
Ordezkarria

Euskadiren Argentina eta Uruguaiko Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikaitzaileko Mahaiburua



Mariana Satostegui
Erakunde-arduraduna

Euskadiren Argentina eta Uruguaiko Ordezkaritza
Epaimaha Kalifikaitzaileko Idazkaria